

{ datorrena } Iñaki SOTO

«Nazka», politikan aintzat hartzeko moduko sentipena

Sentimenduen auzia gero eta garrantzitsuagoa da gatazka politikoak ulertzeko orduan. Estrategia politikoaren barruan, ekintza bakoitzak, diskurtsoak edo lider eta hautagaiek herritarrengan eragiten dituzten sentimenduek garrantzi berezia dute. Ideiei eman ohi zaien garrantzia dute sentipenek, agian, eta erabakigarriak izan daitezke kausa baten alde mugitzeko edo desmobilizatzeko.

Britainia Handiko ultraeskuindarren azken matxinadari buruzko inkesta batek sentimenduei buruz galdetu du aste honetan. Herritarrak «kezkaturata, nahigabetuta, haserre, triste, beldurtuta, frustraturata, etsita, nahastuta, patriotiko, axolagabe, baikor, harro, biziberrituta edo eskertuta» sentitu diren aztertu du. Ordena horretan bizi izan dituzte inkestatuek komunitateen aurkako erasoak; gehienek, kezkarakin eta gutxiengoak, esker onez. We Think Polling enpresak egindako inkestak gertakarien definizioa ere eskatu du, «matxinada» ala «etxeko terrorismoa» izan diren jakiteko. Gatazkaren jatorriaz ere galdetu dute, noski. Epe ertainean gertaera horiek zer sentimendu sortzen duten galdetzea esanguratsuagoa iruditzen zait, ordea.

Inkestak britainiarrak, etorkinekiko indarkeriari dagokionez, nola sentitzen diren galdetu du, eta %68 ez dago ados «iheslarietako etsaitasuna batzuetan justifikaturata dago, baita indarkerian amaitzen bada ere» esaldiarekin, baina %39 ados dago politikarien arreterakartzeko bitarteko bakarria indarkeria dela esatearekin. Desberdinarengandik aldentzera eramaten gaituzten sentipenak zorrotz aztertu behar dira, arrazakeria borrokatu nahi badugu.

“Nueva sociedad” aldizkariak Eva Illouzen “La vida emocional del populismo. Cómo el miedo, el asco, el

resentimiento y el amor socavan la democracia” (Katz, Buenos Aires, 2023) liburuaren pasarte bat argitaratu du aste honetan. Urriaren 7an Hamasek egindako erasoaren ostean, Illouzen jarrerak beldurgarriak iruditu zaizkit. Sionismoaren bere defentsa, antisioismoa eta antisemitismoa berdinduz, fenomeno soziopolitikoak aztertzeko Illouzek duen gaitasunean arrakala bat da, pentsalari gisa bere bertute handiena hori zenean. Judith Butlerrekin izan zuen polemikak bilakaera hori islatzen du. Nolanahi ere, liburua genozidioa baino lehenagokoa da, eta oso interesgarria.

Illouzek Israelen «nazka» eta bere aurkako gisa jotzen duen «purutasuna» erlijio pribatuaren eremutik eztabaida politikora nola igaro ziren aztertu du. Ideien genealogia hori politikoki esanguratsua da.

Britainia Handiko istiluek erakusten dute desberdinarengandik aldentzera eramaten gaituzten sentipenak zorrotz aztertu behar direla; arrazakeria borrokatu nahi badugu, besteak beste

Bere ustez, okupazioaren testuinguruan, ez soilik alor militarrean baizik eta maila sinboliko eta kulturalen ere, segregazioa zabaltzen joan zen, «garbitasunaren» izenean. Illouzen esanetan, eskuin horrentzat «ustez nazkagarriak diren taldeak laikoak, ezkerreko jendea, judu erreformistak, feministak, homosexualak eta, jakina, lehenik eta behin, arabiarrek dira». Erlijioa eta Armada eskema hori bultzatu duen sistemen funtsezko bi egiturak izan dira.

Emozioek garrantzi berezia hartu duten garai honetan –ez beti onerako, nire ustez–, zer pentsatzen dugun esatearekin batera, zer sentipen eragingo ditugun politikoki ebaluatzen ikasi behar dugu. •